


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Arrainen bazka

Javier Dios Lopez

ARTEZBLAI


104 orrialde

9 euro

Lan erasoei buruzko antzezlan

Aseguru etxe bateko hainbat langilek beren kargudunaren aldetik jasaten duten eraso islatu zuen Javier de Dios Lopezen *Comida para peces* antzezlanak. 2006ko Euskadi Saria irabazi zuen lan horrekin. Orain berriz, Artezblai kaleratu du euskaraz *Arrainen bazka* izenarekin, gaztelaniaz Hiru argitaletxearen bidez plazaratu zen lan hura. Harkaitz Canok egin du antzezlanaren itzulpena. Argudioa latza da: enpresa bateko goi karguak lehiakidetzat dituen lankideen aurka egiten dituen trinkimailuak azaltzen dira. Baina protagonistak dena bakarrik egin ezin duenez, enpresan sartu berri

diren eta kontratua berritzeko zain dauden lagunak erabiliko ditu, lanpostuetan gora egiteko bere laguntza izango dutela esanez. ■



Aldaketa klimatikoak badator

Batzuen artean

GAIK

215 orrialde

Planetaren geroak izan ditzakeen arriskuak hizpide

Lurra jasaten ari den klima aldaketa begibistakoa da, eta haren eraginak leku guztietan ari dira nabaritzen. Azken azterketa zientifikoek diotenez, hamar urteko tartea du Lurra kalteak itzulerarik gabeko punturaino iritsi arte, eta neurriak epe hori baino lehen hartu behar dira. Baina horrek hala behar duela esateko argudioak ez dira, lehen aldiz, ingurumenaren arlokoak bakarrik, ekonomikoak ere badira. Horretaz guztiaz dihardu Joseba Etxeberriak eta Unai Martinez Lizarduikoak Gaiak argitaletxearen eskutik argitaratu duten *Aldaketa klimatikoak badator* izenburuko liburu interesgarriak. Metereologiaren historia eta klimatik hasiz, berotegi efektua eta iragarpenak, klima suntsi dezaketen hainbat faktore eta horiei aurre egiteko zer egin aztertu dituzte egileek. ■

Biolinen mundua aldatzeko eragina

I. Biggi idazlea Donostian jaio zen, 1965ean. EHU-n Psikologia ikasketak egin zituen, baina benetan erakartzen duena Historia denez, horretan autodidakta da. Hari horri jarraituz idatzi zuen *El Santuario* (Seix Barral, 2005) nobela, eta ildo beretik doa duela gutxi argitaratutako *La fórmula Stradivarius* ere. Historia, erlijioa eta musika gai dituen polizia giroko eleberria da. Istorioaren oinarria Antonius Stradivariusek XVII. mendean sortutako biolinetatik esku trebeek atera dezaketen doinueta dago. Munduaren etorkizunarentzat eragin apokaliptikoa izan dezake musika horrek. Antonius Stradivariusek bere garaian izan zuen enkargu berezirik hasiz, biolin horiek lapurtzeko helburuarekin XXI. mende hasieran Madrilera eta beste hainbat lekutan gertatzen diren hilketa izugarrien arrazoia azaltzen du nobelak. ■



La fórmula Stradivarius

I. Biggi

SEIX BARRAL

406 orrialde

21,50 euro

Ekofeminismoa eta beste lau gai

Udako Euskal Unibertsitateak Jokin Apalategik zuzenduta plazaratzen duen *Uztaro* aldizkariak bost gai plazaratu ditu bere azken zenbakian. XIX. mendeko paper gaineko argazki koloretatuak buruzko azterketa, sailkapen analisia aldagai heretsiak eta irekiak batera tratatuz atera daitezkeen ondorioak, Joseba Felix Tobar Arbuluk euskal nazio mugimenduari helburu taktiko berri baterako egiten dion proposamena, azken urteotan Debabarreneko euskarazko komunikabideek izan duten bilakaeraz Alazne Aiestaranek idatzitakoa eta Jone Martinezek ekofeminismoaren teoria garatzeko bete behar ditugun baldintzez dioena. Gainera, 2006ko giza eta gizarte zientzietako doktore-tesietan aztertutako gaiak ezagutzeko parada ere badugu aldizkariari esker. ■



Uztaro

Batzuen artean

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

140 orrialde

7 euro



Gipuzkoako atezainak

Batzuen artean

GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA
54 orrialde

Gipuzkoako atezainei omenaldia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzetako Departamentuari eta Ostiraleko Lagunak Atsegintzeko Elkarteari esker dugu eskuartean *Gipuzkoako atezainak. Porteros guipuzcoanos* liburua. Gipuzkoako futbolaren historian nabarmendu diren atezainei egindako omenaldia da lana. Lurralde txikia izan arren, hainbat eta hainbat atezain handiren sorlekua izan da Gipuzkoa. Anechino, Agustin Eizagirre, Sebitas, Eduardo Chillida, Jesus Mari Zubiarrain eta Javier Urrutikoetxea izen handiak dira futbolaren historian. *Gipuzkoako atezainak* liburuk bost onenak omendu

ditu: Inazio Eizagirre, Josetxo Arakistain, Jose Angel Iribar, Luis Miguel Arkonada eta Andoni Zubizarreta. ■

Otxoluari euskarak eta euskaldunok zor dizkiogunak


Bernardo Maria Garro, *Otxolua* (1891-1960) mundakarrari eskaini dio Adolfo Arejitak *Idatz & Mintz* literatur ataleko sorta bat. Xehetsun handiz idazlearen berri eman eta gero, *Otxolua* euskal itzulpengintzari utzi zizkion lanetatik batzuk argitaratu ditu, besteak beste, *Abere dontsuak* obraren *Lehenengo gaua* kapituluko aurreneko atala eta Mistralen *Mireio* lanaren bizkaierazko itzulpena. *Idatz & Mintz*en 43.

zenbakiak beste hainbat egileren lanak ere bildu ditu, Asel Luzarraga edo Miren Ibarluzea, besteak beste. ■

Idatz & Mintz

Batzuen artean

LABAYRU IKASTEGIA
40 orrialde



KARLOS LINAZASORO

«Uste dut *Etzi* maitasun istorioa dela, azken finean»

Azal ezazu zer den *Etzi*.

Liburu nahiko fina da, baina asko kostatu zait bukatzea. Sarritan halaxe izaten dira gauzak: zenbat eta txikiagoa lana, orduan eta zailago izaten da bukatzen. Liburu honen atzean dagoen historia hauxe da: nik iloba bat daukat Down sindromea duena. Hamabost-hamasei urte dauzka. Berari liburu bat eskaini nahi nion, baina beti utzi egiten nuen, sekula ez nuelako aurkitzen gaiari heltzeko tenore aproposa: behingoz orde, erabaki nuen bere bizitzan edo izaeran oinarritutako liburuxka egitea. Hauxe da.

Nola burutu zenuen zeure asmoa?

Bi anaien istorioa da. “Normala” den anaia gazteak kontatzen ditu bere anaia sindromedunaren gertakariak. Nolanahi ere, egun bateko epean gertatzen den istorioa da. Ez dago akzio handirik, gogoeta liburua da gehienbat. Uste dut maitasun istorioa dela; anaiak, aitona-amonak eta gurasoek anaia, iloba eta seme horri dioten maitasunaren istorioa.

Zer izan da zailena idazterakoan?

Askotan horrelako kasuetan erruki faltsua izaten da jende honekiko. Nik hori saihestu nahi izan dut, eta uste dut ez dagoela liburuan erruki faltsurik, justu kontrakoa baizik. Pasarte triste samarrak daude, umorea ere bai, poesia pixka bat... Eta intriga pixka bat hasieratik bukaeraraino. Irakurlea engantxatzen duen zerbait. Horretan saiatu naiz ni behintzat, irakurlearen arreta mantentzen duen tentsioa agertzen: bukaera arte gurasoak eta mutil sindromeduna nora joan ote diren galdera sortzen.



egileari galdezka

Bruno zoragarriari eskainitako kontakizuna

Bere anaia ez dela bera bezalakoa aspaldi konturatu zen mutilaren ahotik jakingo dugu

Bruno Down sindromedunaren berri, Karlos Linazasorok idatzitako *Etzi* kontakizunean. Joan berri da Bruno, gurasoei batera, bere bizitzan erabakigarria izango den zerbait egitera. Betiko alaitasunez agurtu ditu anaia gaztea eta aitona-amonak, beti bezain irribarretsu, segurtasun uhala ipinita, kaskoak belarrietan. Baina atzean utzi dituenen beldurra soma daiteke. Zertara ote doaz alde egin dutenak? Horren berri badute etxean gelditutakoek, baina ez dute esaten, izu larriagoa dutelako: zer gerta ote dakioke Brunori aurrerantzean? Hori da anaia gazteak eta aitona-amonak garbi esan gabe barnean daukaten arrazoiak berarekin; baina zoragarria ere bada, beste batzuetan. Bere anaia gazteak ikasi du Down sindromeduna izateagatik ez duela hark ere dena libre, berak bezala dituela betebeharrak eta eskubideak. Brunok badaki oso bihurria izaten, baina ezin zaio nahi duen guztia egiten utzi. Gutxitan egiten du negar. Baina dena delakoa izanda ere, etxe-ko guztiek asko maite dute. ■



Etzi

Karlos Linazasoro

ELKAR

56 orrialde

8 euro